

# AUZI BAT

---

**P**ERI-tik echeratu ziranian, ez ziran guztiz alai, bazarri bateko senar emaste batzuek.

Cherri bat erosi zuten, eta diru geiško beragatik eman zutela iruditzen zitzaizen.

Zenarrak emastia zala meriyo geyegi erriatu zutela, emastiak berriz zenarra gatik izan zala ainbeste isuritzia; baten eta bestien artian bazan gau artan makiñabat zer esan.

¿Zenbait aldiz damutu zitzaizen cherri ura erosiya!

Ez batak eta ez bestiak, ez zuten zenar emastiak, lo askorik egin gau artan.

Jeiki ordurako; jechi zan emastia ukullura, cherriya zegon lekura, eta an zegon arri begira esanaz bere artian:

—Gezurra diruri nere senar kirtinak, onen gatik ainbeste diru ematia.

Eta butzaka, arrastaka eta zilipurdika zebillen cherri gaşua, jabiak diru asko emanakin arrek zer ikusi balu bezela.

Ontan echekoandriak ikusten du lurrian, cherri aspiyan, zuri zuri, dizdiatzen dubela, illargiya añako bost pestako, biribill biribill bat.

¿Nondik etorri zan leku artara alako edertasuna?

Etzan asmatzen erreşa. ¿Cherriyak egiñ ote zuben?

Alako zerbait iduritu zitzaion noski andriari; bada zenarra, besperako erretolikak berritubaz, azi zanian geruago marmarrian diru geyegi eman zutelako cherriya gatik; emaztiak ezetz erantzun ziyon, ez zala ala:

—Diru asko eman badegu ere, alakoşia da cherriya. Ez guk, eta ez iñork izan ez duben bezelakua.

Eta egun guziyan etzan gelditu, gelatik ukullura, eta ukullutik ge-

lara. Bañan ez ziyon cherriyari begiratzen; lurrian josten zituben bi begiyak.

Alakorik batian, adtu zan karrasi bat. ¡Cherriyen oñetan beste bost pestakua zegon!

Bere burabakin ezin zubela, korrika biziyan joan zan zelaira zenarraren gana, eta bere ondora irichi baño len, oju egin ziyon:

—Olluak arrautzak bezela, gure cherriyak..... bost pestakuak egiten ditu.

Zenarrak aditu zubenian alako berri zoragarriya, ez zuben galdetu egia ala gezurra zan; bakar bakarrik esan ziyon emastiari:

—¡Ez iñori esan!

Biyak biurtu ziran echiera, juan ziran ukullura, begiratu zioten cherriyari, eta abo zabalik gelditu ziran arkitutako bi bost pestakuak eskubetan ikusirik.

Oyeratu baño len jechi ziran berriro ukullura, eta ¡gauza arrigariya! anchen zegon lenguak baño-re biribillagoko irugarren bost pestakua.

Besperan ez bazuten loik egiñ, guchiyago egin zuten gau artan.

Emastiak buruba bost pestakoz betia zeukan. Ez zuben besterik ikusten alderdi guzietan. Aurrera ere orla badijua gure cherriya, ez da inguru abetan gu bezin aberatzik izango. Egingo degu bost pestakoz pillat bat, eleiza-ko dorria baño gorago igoko dana.

Zenarra-ri berriz ainbeste bost pestako nola gordeko zituben, orrek ematen zion buru-austia.

Loik ez egiñagatik, beñere baño pizkorrago, eta azkarrago jechi ziran ukullura eta..... anchen zegon lauguren bost pestakua.

Andriak lasaitasun ta alaitasun aundiyan oju egiten zuben: betiko aberastu gera.

Zenarrak, estutasun eta bildurrez josirik, au bakarra ziyon «ez iñori esan».

Leku onian. Emakumiari isiltzeko esatia alperrikako itz egitiada. Eta ala izan zan orduban ere.

Bati ta bestiari esanaz, jakiteratu zan zaltzallia, eta gure zenar emastiak bost pestakuak bildu eta pillatzen ari zirala agertu zitzayen esanaz:

—Bost pestako oyek neriak dira. Polchako batian neuzkan gordiak, ostu egin zizkiatela uste nuben, baña ikusten danez cherriyak jan zizkiran eta orain ateratzen zaizka. Ekaskitzute bada neriak dira eta.

Ez det esango, zenar emastien oju eta karrašiyak nolakuak izan ziran.

—Nik cherriya kanpo ta barren erosi det, eta bere barrendik ateratsen dana neria da. Bost pestakuak barrenen bazeuzkan, pišuban anchen sartu ziran gañerakua bezela.

—Ez dirasute ordia cherriya zillarra bezela ordaindu.

Eta ausitara juan dira.

¿Zeñenak dira bost pestakuak?

Badakit nik, zeñenak izango diran orain: ausia erabaki biar duten eskribau eta gañerako *lumazko* gizonenak.

Erostuna eta saltzallia chibotik gabe geldituko dira. Eta kontu eman oraindik ez ote dan cherriya saldu biarko berriro, *lumazkoai* ordaintzeko.

A. DARRA

